

## Kilometroak 2022

Urriaren 2an Ibarra Kilometroak festa ospatuko da eta egun horretarako **KMK batzordetik laguntza eskatu dute:**

Eguneko antolaketarako Uzturpe Ikastolak laguntza behar du, ikastola txikia da eta denen laguntza behar dute.

Lantaldeetan izena emateko [galdetegia](#) betetzea eskatzen dizuegu. Eskerrik asko!!



**irribarra**  
kilometroak 2022 Ibarra  
UZTURPE IKASTOLA

## Jangela-zerbitzuaren oharrak

- ❖ **Erabiltzaileekin bilera:** Irailaren 19an 16:30etan, jangelako erabiltzaileekin bilera bat egingo dugu **jangelan bertan**. Jangelako janaria, antolaketa nahiz funtzionamenduaz eta menuez hitz egiteko bilera izango da.
- ❖ **Jangela batzordea:** bertan jangela-zerbitzuaren eskaintzaz, funtzionamenduaz, antolamenduaz eta menuez hitz egiten da, besteak beste. Funtzionamenduaren jarraipena egiteko, bi hilabetez behin ordubeteko bilerak egiten dira. Bertan parte hartu nahiko bazenu, eman izena [galdetegi hau](#) betez



## Bertsolaritza 2022/2023

Aurten ere, guraso talde baten eskutik, bertsolaritza eskolak antolatuko dira LH4, LH5, LH6 eta DBH1 mailako ikasleentzat.

**Noiz:** ostegunero Udarregi eraikinean 13:30etik 14:30era (urritik maiatzera)

**Kuota:** 65 euro

**Kontaktua:** 608 768 539 (Whatsapp)

**Izena emateko azken eguna:** irailak 16, GAUR

**Irakaslea:** Xabat Illarregi



## Eskola-kirola

- ❖ **Hasiera data:** 2022-2023ko ikasturterako Zirimaran (LH 1, 2, 3, 4) futbol-eskubaloian (LH 5-6), eta esku pilotan (LH1-DBH2) izena emanda daudenak **urriaren 3ko asteen hasiko dira.**

Gurasoekin egingo ditugun bileren berri aurrerago emango zaizue.

Edozein zalantza argitzeko, [eskolakirola@udarregi.eus](mailto:eskolakirola@udarregi.eus) helbidera idatzi.



- ❖ **Dirulaguntzak:** Eskola kirolean izena ematen duten familiak, Usurbilgo Udalak eskolaz kanpoko kirol jardueretan parte hartzeko ahalbidetzen dituen dirulaguntzaz balia daitezke. Eskaerak aurkezteko leku eta dokumentazioari dagokionez, pertsona fisikoek presentzialki edo telematikoki aurkeztu ditzakete, eta pertsona juridikoek, soilik telematikoki. Presentzialki, Udaleko Erregistro Nagusian (Joxe Martin Sagardia plaza, z/g), eta telematikoki, udalaren zerbitzu telematikoko dirulaguntzak atalean ([www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus)). Bete beharreko dokumentazioa web orrialdean dago, dirulaguntzen atalean. Eskaerak egiteko epeari dagokionez, **irailaren 1etik urriaren 28ra artekoa da epea.**

Bestalde, Usurbilgo Udalak, kiroldegiko abonua eta ikastaroen kuotetan hobariak eskuratzeko aukera ahalbidetzen du urte osoan zehar. Eskaera, udaletxean aurrez aurre, 08:00etatik 14:00etara, posta arrunt bidez edo internet bidez egin daiteke. Hobariak jasotzeko eskubidea internet bidez eskatu ahal izateko [B@KQ](mailto:B@KQ) txartela beharrezkoa da.



Usurbilgo Udala

## Lan-eskaintza: Zirimarako hezitzailea

2022/2023 ikasturterako Zirimarako hezitzaile bat behar da. [Hemen](#) informazio osoa.

## Ikasketa-beka

2022/2023 ikasturterako Eusko Jaurlaritzak bideratzen duen beka eskatzeko epea **irailaren 30era** arte irekita egongo da.

Informazio guztia [hemen klikatuta](#) ikus dezakezue. Edozein zalantza argitzeko edo argibide gehiagorako idazkaritzarekin jarri harremanetan.

Era berean, Udarregi Ikastolak, irakaskuntzaren finantzazioari laguntzeko asmoz, beka-sistema propioa eskainiko die bere bazkideei. Beka-sistemaren baldintzak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta diru-laguntzaren zenbatekoaren inguruko xehetasunak [hemen klikatuz](#) irakur daitezke.



# HAUR HEZKUNTZA

## Baso-eskola

Iaz bezala, aurten ere Baso Eskolaz gozaten jarraituko dugu, baina eremua prestatzeko gurasoen laguntza behar dugu. Beraz, auzolanerako deialdia egin nahi dugu **irailaren 24**rako, larunbata. Goizeko **9:00etan Mahaspildegiko aparkalekuan** bilduko gara.

Egin beharreko lanak honakoak dira:

- Erreka arroa garbitu.
- Bertan dauden kainaberak pilatu.
- Zaborra bildu.

Lanerako beharko ditugun harramintak:

- Eskularruak
- Aitzurrak eta palak
- Zakarrak biltzeko ontziak
- Orgak(karretillak)

Aurrez, parte hartzera animatzen zaretenoi gure eskertza adierazi nahi dizuegu ikastolatik.

**Mila esker!**



# LEHEN HEZKUNTZA

## Zinemaldira irteera

Bi urtez Zinemaldia ikastetxeetan bizi ondoren, 70. edizio honetan Belodromoko emanaldietara itzuliko gara.

**Irailaren 23an**, ostirala, goizeko ordutegian, LH 3, 4, 5 eta 6ko ikasleak Donostiara joango dira. LH 1eko eta 2ko ikasleak berriz, Sutegin ikusiko dute filma.



## Liburutruk

Liburutruken parte hartzen duten LH5 eta LH6-ko ikasleei, liburuak, ikastolako lehenengo egun hauetan banatzen ari zaizkie.

Bigarren zatia **kobranta**, **iraileko erreziboarekin batera** egingo da eta kostua **41,65 €** izango da.



## Guraso-bilerak

Bilera orokorretako datak jakinarazi nahi dizkizuegu:

Irailak 20: **LH 4**

Irailak 21: **LH 2**

Irailak 22: **LH 3**

Irailak 26: **LH 5**

Irailak 27: **LH 1**

Irailak 29: **LH 6**



**Bilerak, jangelan** egingo ditugu, baina antolaketa errazteko, **asistentziaren** inguruko **galdeketa** jasoko duzue Google Forms bidez.

Txosten orokorra, bilera aurretik jasoko duzue korreo elektronikoa eta Alexia bidez eta bilera egunean, zalantzak argitzeko tarteak eskainiko dira.

## Baso-Eskola

Iaz bezala, aurten ere Baso Eskolaz gozaten jarraituko dugu, baina eremua prestatzeko gurasoen laguntza behar dugu. Beraz, auzolanerako deialdia egin nahi dugu **irailaren 24**rako, larunbata. Goizeko **9:00etan Mahaspildegiko aparkalekuan** bilduko gara.

Egin beharreko lanak honakoak dira:

- Erreka arroa garbitu.
- Bertan dauden kainaberak pilatu.
- Zaborra bildu.

Lanerako beharko ditugun harramintak:

- Eskularruak
- Aitzurrak eta palak
- Zakarrak biltzeko ontziak
- Orgak(karretillak)

Aurrez, parte hartzera animatzen zaretenoi gure eskertza adierazi nahi dizuegu ikastolatik.

**Mila esker!**

# DBH

## Zorriak

**DBH 1**eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

**Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.**

**NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA**



## Liburutruk

Liburutruken parte hartzen duten ikasleei, liburuak aurkezpen egunean banatu zitzaizkien. Liburuak jasotzearekin batera, ikasle bakoitzak liburu guztiak jaso dituela egiaztatu beharko du.

Ekainean 60 €-ko bermea kobratu zen eta iraileko erreziboekin batera, gainontzeko likidazioa kobratuko da. Prezioak honakoak izango dira:

- DBH: 69,30 € + hautazkoak: DBH4 Frantsesa: 26,21 €

DBH4 Fisika/Kimika eta Biologia/Geologia: 29,41 €

